

# Prentsa oharra

## Nota de prensa



## **11 BRIGADA ARDURATZEN DIRA OBRA TXIKIEZ ETA BIDE PUBLIKOAREN KONPONKETEZ**

- **UTEGOKI**k eskaintzen du zerbitzua, urteko **3,8 milioiko zenbatekoarekin**

Hogeita hamar bat lagun, 11 brigadatan banatuta, Donostiako kale eta bideetako zoladurak konpondu, berritu eta mantentzeaz arduratzen dira egunero.

Carlos García Hiri Zerbitzuetako zinegotziak adierazi duenez, "hiriko egunerokotasunaren bizkarrezurraren parte dira. Jarduera txiki eta ez hain txikiez arduratzen dira, hala nola espaloia beheratzea, plaza bat hobetzea, luizi bat artatzea edo itsas denborale baten ondorioak eta kostaldean duen inpaktua konpontzea".

Zerbitzuaren enpresa esleipenduna UTEGOKI da, Serkom eta Campezoek osatua. Lehiaketa publikoak datozen hiru urteetarako esleipena dakar, urtean bi luzapen egiteko aukerarekin. Kontratuaren zenbateko ekonomikoa urtean 3.800.000 €-koa da, BEZa barne.

Aipatutakoez gain, espaloietan konponketak egiteaz, galtzadak garbitzeaz, arekak garbitzeaz, hartxintzarrezko parke eta pasealekuak arrostelatzeaz, ibaiaren horma garbitzeaz, irisgarritasuna hobetzeaz (arrapalak, belarritxoak, oinezko goratuentzako pasabideak eta baldosa pododaktiloak) arduratzen dira.

# Prentsa oharra

## Nota de prensa



Era berean, lur-jausien, galtzadaren eta espaloiaeren hondoratzeen, elurteengatiko neguko bideragarritasunaren edo hiria hobetzeko obra-proiektuen idazketaren ondoriozko bide publikoko larrialdi-kasuei erantzuteaz arduratzen dira.